

Parte hartu nahi?

Liburutegiak marrazki-lehiaketa antolatu du auzokojaietarako. Zorroztuzure arkatzen puntak eta parte hartu! Saria ez da edonolakoa izango!

Lehiaketaren oinarriak

1. Marrazkiak lelo honekin lotura izan behar du:

Liburua, abentura segurua.

2. **8 eta 14 urte bitarteko neska-mutilek** hartu ahal dute parte, **2 multzotan banatuta**:

A multzoa: 8 eta 11 urte bitartekoak

B multzoa: 12 eta 14 urte bitartekoak

3. Lanak liburutegian bertan aurkeztuko dira **uztailaren 14a** baino lehen.

4. Aurkezten diren lanek **21 cm luze eta 15 cm zabal** izango dituzte.

5. Lanak **gutun-azal itxian** aurkeztu behar dira, kanpoaldean “Marrazki-lehiaketa” adierazita. Barrualdean, marrazkia eta gutun-azal itxi batean, egilearen **izen-abizenak, telefono-zenbakia eta helbidea**.

6. Liburutegiko langileek eta auzokideen elkarteko kideek marrazkirik onenak sarituko dituzte. Horretarako, **originaltasuna, gaiarekiko lotura, eginiko ahalegina** eta abar hartuko dituzte kontuan.


7. Kategoria bakoitzeko sari bat izango da. Irabazleek **30 euroko bono bat** jasoko dute, auzoko liburu-dendetan eskolako materialaren truke egiteko; horrez gain, ipuin-liburu bat eta diploma bat ere jasoko dute.

8. Kategoria bakoitzeko irabazleen lanak liburutegiak datorren urtean argitaratuko dituen **orri-markagailuetan agertuko dira**.

9. Sari-banaketa **uztailaren 17an** izango da, arratsaldeko 17:00etan, liburutegiko areto nagusian.

10. Lehiaketaren antolatzaileek arau hauek aldatu ahal dituzte, beharrezko jotzen badute.

Zorte on guztioi!



Izena _____

Data _____

Aukeratu erantzun zuzena.

- 1 Nork antolatu du marrazki-lehiaketa?**
 - A. Marrazketa-eskola batek.
 - B. Auzoko eskolak.
 - C. Auzoko liburutegiak.
 - D. Auzokideen elkarteak.

- 2 Nork har dezake parte lehiaketan?**
 - A. Umeek zein helduek har dezakete parte.
 - B. 8 eta 14 urte bitarteko umeek hartu ahal dute parte.
 - C. Helduek baino ezin dute parte hartu.
 - D. 8 urte baino gehiago duten guztiek hartu ahal dute parte.

- 3 Zein izango da lehiaketako saria?**
 - A. Zoritxarrez, ez da saririk egongo.
 - B. Liburu bat baino ez.
 - C. Diru-bono bat, ipuin liburu bat, beste gauza batzuen artean.
 - D. Marrazkiekin kartelak egingo dira.

- 4 Zer gai izan behar du marrazkiak?**
 - A. Liburuak eta abenturak izango dira gaia.
 - B. Gaia edozein izan daiteke.
 - C. Jaietako giroa izango da gaia.
 - D. Liburutegia izango da gaia.

- 5 Nolako neurriak izan behar dituzte marrazkiek?**
 - A. Edozein neurritako lanak izan ahal dira.
 - B. Gutxienez 21 cm luze eta 15 cm zabal izan behar dituzte.
 - C. Gehienez 21 cm luze eta 15 cm zabal izan behar dituzte.
 - D. 21 cm luze eta 15 cm zabal izan behar dituzte.

6

Nork aukeratuko ditu lehiaketako irabazleak?

- A. Gurasoen elkarteko kideek.
- B. Auzokideen elkartekoek eta liburutegiko langileek.
- C. Parte hartzaileek eta auzokideek.
- D. Liburutegiko zuzendariak.

7

Noiz arte aurkeztu ahal dira marrazkiak lehiaketarako?

- A. Jaietako lehen egunera arte.
- B. Uztailaren 17ra arte.
- C. Eguberri egunera arte.
- D. Jaietako azken egunera.

8

Noiz eta non izango da sari banaketa?

- A. Uztailaren 17an izango da liburutegiko areto nagusian.
- B. Jaietako azken egunean plazako oholtzan.
- C. Uztailaren 14an eskolako areto nagusian.
- D. Uztailaren 14an eskolako areto nagusian.

9

Zer testu mota da irakurgaia?

- A. Gonbita.
- B. Lehiaketa baten arauak.
- C. Iragarkia.
- D. Errezeta bat egiteko jarraibideak.

10

Zein EZ da egokia esaldi honi bukaera emateko?
Lehiaketen oinarri edo arauetan...

- A. ...antolatzailea nor den adierazten da.
- B. ...irabazlea nor izango den adierazten da.
- C. ...irabazlea nork aukeratzen duen adierazten da.
- D. ...saria zein den adierazten da.